



Esparru Atlantikoko Lankidetzaren Programaren lehen deialdian onartutako 45 proiektuetako 13tan 9 euskal entitatek parte hartzen dute. 13 milioi euro jasoko dute Eskualde Garapenaren Europako Funtsetik.

INTERREG-*Atlantikoko espazioa*, 5 herrialde europarretako 36 eskualderen herrialde-gaindikoko lankidetzaren bultzatzen duen programa da. 185 milioi euroko aurrekontua du, eta horietatik, 140 milioi EGEFetik datoz.

Programa horrek ondorengo eremuetako lankidetzaren proiektuak kofinantzatzen ditu: Lehiakortasuna, Baliabideen efizientzia, Eskualdeko Arriskuen Kudeaketa eta Biodibertsitatea, Natura eta Kultura Ondarea .

2018ko urtarrilaren 15ean, Programaren Kudeaketaren Agintaritzak sinatu zituen Jarraipen Batzordeak, lehen deialdia izanik, 2017ko maiatzean onartutako 45 proiektuentzako lehen finantzaketa-kontratuak. Proiektu horiek, orotara, 117,3 milioi euroko finantzaketa-inbertsioa osatzen dute. Zenbateko horren 87,9 milioi euro EGEFek kofinantzatua dago. Proiektu horien bazkide publiko eta pribatuak estatu parte-hartzaileen (Espainia, Frantzia, Irlanda, Portugal eta Erresuma Batua) 36 eskualde atlantikokoak dira. Beste bazkide batzuk, beste estatu batzuetakoak ere badira: Belgika, Alemania, Italia, Norvegia, Herbehereak, Maroko, Kanada eta Amerikako Estatu Batuak.

EAEren kasuan, onartutako 13 proiektuetan 9 euskal entitatek parte hartzen dute. Ondorioz, gure erkidegoa lehen deialdi horretan programaturiko proiektuen %29an dago, eta gure bazkideentzako EGEFetik datorren laguntza 3,3 milioi euro ingurukoa da (guztiaren % 3,7).

Nabarmentzekoak dira AZTI, 6 proiektutan parte hartzen du, eta Euskal Herriko Itsas Foroa, 3 proiektutan dabil lankidetzan. Bien artean, EAERako aginduta dagoen Europar Batasuneko laguntza guztiaren erdia jasoko dute. Gainera, euskal bazkidea duten onartutako 13 proiektuetako bitan taldeburu dira biak.



INTERREG ESPAZIO ATLANTIKO. LEHENENGO DEIALDIA
EAEko sustazaileak dituzten programatutako proiektuak

Proiektuaren Kodea	Akronimoa	Bazkidea	EAEko Inbertsioa	EAEko EGEF	Inbertsioa guztira	EGEF guztira
EAPA_182/2016	PRIMROSE	Fundación AZTI – AZTI Fundazioa	201.148	150.861	2.729.348	2.047.011
EAPA_224/2016	MOSES	Fundación AZTI – AZTI Fundazioa	176.273	132.205	2.200.404	1.650.303
EAPA_224/2016	MOSES	FORO MARITIMO VASCO	75.735	56.801		
EAPA_224/2016	MOSES	Euskal Herriko Unibertsitatea / Universidad del País Vasco	316.622	237.466		
EAPA_250/2016	Atlantic-Geoparks	GEOGARAPEN, Asociación para la Gestión del Geoparque de la Costa Vasca	139.400	104.550	1.946.500	1.459.875
EAPA_261/2016	ALICE	ASOC. BC3 BASQUE CENTRE FOR CLIMATE CHANGE – KLIMA ALDAKETA IKERGAI	380.442	285.332	2.976.034	2.232.025
EAPA_285/2016	MyCOAST	Fundación AZTI – AZTI Fundazioa	379.132	284.349	2.998.954	2.249.216
EAPA_285/2016	MyCOAST	Seguridad, Gobierno Vasco				
EAPA_304/2016	Dairy-4-Future	NEIKER, Basque Institute for Agricultural Research and Development	285.500	214.125	3.899.152	2.924.364
EAPA_317/2016	ALERTOX-NET	Fundación AZTI – AZTI Fundazioa	121.244	90.933	2.906.168	2.179.626
EAPA_344/2016	ARCWIND	SAITEC, S.A.	343.500	257.625	3.920.147	2.940.110
EAPA_344/2016		Vicinay Marine Innovación	323.316	242.487		
EAPA_358/2016	CONSORTEX	FORO MARITIMO VASCO	251.833	451.500	1.683.000	1.262.250
EAPA_383/2016	IN 4.0	Foro Marítimo Vasco	251.833	188.875	2.549.352	1.912.014
EAPA_501/2016	EBB	UNIVERSIDAD DEL PAIS VASCO/EUSKAL HERRIKO UNIBERTSITATEA	246.285	184.714	1.999.878	1.499.908
EAPA_565/2016	MONITool	Fundación AZTI – AZTI Fundazioa	308.821	231.615	1.952.706	1.464.529
EAPA_565/2016	MONITool	Uraren Euskal Agentzia URA - Agencia Vasca del Agua URA				
EAPA_87/2016	SEA-TRACES	Fundación AZTI – AZTI Fundazioa	213.575	160.181	3.526.908	2.645.181
Proiektu guztira	13		4.014.659	3.273.619	35.288.551	26.466.412